

Eguzki irratia demanda que la licencia de radio de Iruñea se destine a emisoras comunitarias

EGUZKI IRRATIA :: 02/05/2019

[Eusk/Cast]El actual Gobierno tampoco ha querido solucionar un problema histórico de discriminación que afecta a la libertad de expresión y pluralidad de medios

Eguzki irratiak, Iruñeko lizentzia irrati komunitarioentzat bideratzea eskatzen du.

Ezaguna denez, pasa den martxoaren 4an **Nafarroako Gobernuak** lehiaketa bat iragarri zuen, irrati-lizentziak esleitzeko xedez. Horren harira, honako hau adierazi nahi dugu:

1-Lehiaketa horretan, lizentzia bat eskaintzen da Iruñerako. Lizentzia hori bera **lehenago ere eskaini zen**, 2017an deitutako lehiaketan, **irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat gorderik**. Albiste ona izan zen guretzat, horrekin amaiera ematen baitzitzaien **irrati libre eta komunitariook** hamarkadetan jasan ditugun **diskriminazioari, ostrazismoari eta alegaltasunari**.

2-Hala ere, geroago, **Nafarroako Gobernuak bertan behera utzi zuen** irrati komunitarioentzako lehiaketa hura, Eusko Media SL entitate pribatuaren errekurtsioa aintzat hartu ondoren. **Etsipenez jaso genuen albistea**: gure ustez, bideragarria zen irabazi-asmorik gabeko irratiari ematea maiztasun hori; aldiz, Nafarroako Gobernuak **ez zuen borondate politikorik izan** asmo hura aurrera ateratzeko.

3-Martxoaren 4an, esan bezala, Nafarroako Gobernuak **beste lehiaketa bat iragarri** zuen berriz ere, baina, oraingoan, **irrati komertzialei zuzendurik**. Beraz, gobernu honen jokabidea ez da asko aldatu aurretiko gobernuak zutenaren aldean: haien esku egonagatik ere, gurea bezalako **zenbait irrati erregularizatzeari uko** egin diote, eta, ondorioz, ezinezkoa izanzen zaigu baldintza duinetan eta berdintasunean aritzea. **Ezin dugu ulertu zer-nolako interesei egin dien men** orain gobernu honek, bere burua “aldaketaren gobernutzat” daukan horrek.

Puntu honetan, gogora ekarri nahi dugu **Europako herrialde gehienek hamarkadak daramatzatela irabazi-asmorik gabe emititzeko lizentziak eskaintzen**. Are, Espainian ere izan da horrelakorik. Bestalde, azken 40 urte hauetan, **irrati komertzialentzako lehiaketa ugari izan dira Nafarroan**; horietatik, bakar bat ere ez gure sektorearentzat; hots, hirugarren sektorearentzat.

Berriz azpimarratu nahi dugu **bideragarria dela**, guztiz, **komertziala ez den irrati batendako gordetzea lizentzia** hori. Izan ere, lehenagoko lehiaketa batetik berreskuratua da, eta hura onesteko unean ez zegoen indarrean 2010eko lege orokorra, ikus-entzunezko komunikazioari buruzkoa. Antzeko kasuak izan dira aurretik, eta Espainiako Gobernuak berak adierazi du, **Diputatuen Kongresuko** galde-erantzunetan, irabazi-asmorik gabeko zerbitzu komunitarioendako eskain daitezkeela horrelako lizentziak, **inolako arazorik gabe**, baldin eta 2010eko legea indarrean sartu aurretikoak badira.

4-Laburbilduz, Nafarroan egun dugun **gobernuak** ez dio irtenbiderik eman **diskriminazioaren** arazo historikoari, zeinak mugak jartzen baitizkie **adierazpen askatasunari** eta **komunikabideen aniztasunari**. Ez dira Madriletik iritsiko gure sektorearentzako lizentziak, eta Nafarroako Gobernuak ez du inolako aurrerapausorik egin arazoa konpontze aldera, horretarako baliabide aski badituen arren.

Egoera honen aurrean, eta Nafarroan **irriti komunitarioentzako lizentziak lortzea helburu**, pauso hauek eman ditugu:

Lehenik, **ekarpenak** egin ditugu urtarrilaren 25eko 5/2012 Foru Dekretua aldatzeko proiektuaren aurrean, **eta gure ikuspuntua argi utzi dugu**. Hain zuzen, foru dekretu horrek arautzen ditu Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak.

Bigarrenik, **gora jotzeko errekurtoa aurkeztu dugu otsailaren 20ko 10/2019 Foru Aginduaren aurka**. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak, agindu horren bidez, **lehiaketa** bat onetsi zuen, irriti-hedapenerako **hiru lizentzia** emateko Nafarroako Foru Komunitatean. Errekurtsoan eskatu dugu agindu hori erabat deusez deklaratu dezatela, ebazpen baten bidez, eta, hortaz, abian den **lehiaketa geldiaraz dezatela**.

Azkenik, prentsaurreko honetan azaldutako arrazoi guztiengatik, **lehiaketan parte hartzea erabaki dugu**. Gure ustez, Iruñeko mugaperako esleitutako maiztasunak irriti komunitario batendako behar du izan, 2017ko uztailan deitutako lehiaketan bezalaxe. Halaber, bidezkoena iruditzen zaigu **Eguzki Irratiaren egoera erregularizatzea**, Nafarroan emititzeko lizentzia emanez, 36 urte daramatzagu-eta lan horretan.

Hori lortzekotan, **Nafarroako gizartea izanen da irabazle, komunikabideak demokratizatuko** baitira, eta **aniztasuna** eta **adierazpen askatasun** abermatuko baitira.

Eguzki irratiak demanda que la licencia de radio de Iruñea se destine a emisoras comunitarias.

Como es conocido el **Gobierno de Navarra** anuncio el pasado día 4 de marzo la convocatoria de un nuevo concurso de licencias de radio en este sentido queremos manifestar lo siguiente.

1-En dicho concurso se oferta una licencia para Pamplona que como se recordará **se incluyó en el anterior concurso** convocado en 2017 y que estaba **reservada a entidades sin ánimo de lucro**, algo que desde esta emisora calificábamos como una buena noticia ya que acababa con décadas de **discriminación, ostracismo y ilegalidad** para las **radios comunitarias** o libres como la nuestra.

2-Posteriormente el **Gobierno de Navarra** anuló dicho concurso de licencia para radio comunitaria en Pamplona, al estimar un recurso de la entidad privada Eusko Media S.L., algo que calificamos como **decepcionante** ya que era perfectamente posible sacar dicha

frecuencia para emisoras sin ánimo de lucro y que entendíamos que no era más que una cuestión de **voluntad política** que el Gobierno de Navarra no había tenido.

3-El pasado 4 de marzo el Gobierno de Navarra anuncio que finalmente dicha licencia para Pamplona **volvía a salir a concurso** pero esta vez como **radio comercial**, lo cual supone que el actual ejecutivo sigue el camino de sus predecesores en el sentido de **no solucionar el problema de la regularización** en condiciones dignas y de igualdad para radios como **Eguzki irratia**, algo que **era perfectamente posible** y que no entendemos a que **intereses** obedece dicha decisión en un gobierno que se autodenomina del “cambio”.

En este sentido queremos volver a recordar que en la mayoría de Europa hace décadas que las **radios comunitarias disponen de licencias para emitir** como entidades sin ánimo de lucro y que incluso en el estado español se da algún caso de regularización de estas emisiones. Por otro lado, han sido **numerosas las licencias** sacadas a concurso **para radios comerciales en Navarra** a lo largo de los últimos 40 años sin que ni siquiera ni una sola de ellas haya sido para emisoras de nuestro sector (el tercer sector).

También queremos insistir una vez más en que es **perfectamente posible** destinar esta frecuencia para una **emisora no comercial** ya que dicha licencia esta rescatada de un anterior concurso previo a la ley general audiovisual del 2010 y en este sentido existen precedentes e incluso el Gobierno central en respuestas a preguntas en el **congreso de los Diputados** ha manifestado que **no había problemas** en que estas frecuencias asignadas antes del 2010 se asignasen a servicios comunitarios sin ánimo de lucro.

4-Resumiendo el actual **Gobierno de Navarra** tampoco ha querido solucionar un problema histórico de **discriminación** y que afecta a la **libertad de expresión** y a la falta de **pluralidad de medios**, y esperar a que Madrid de licencias para este sector no es más que una huida hacia adelante ya que disponía y dispone de medios para dar pasos en la solución de este problema.

Ante esta situación y con el **objetivo de conseguir licencias para radios comunitarias** en Navarra, hemos realizado las siguientes actuaciones:

En primer lugar, hemos hecho **aportaciones y manifestado nuestra posición** ante el proyecto de modificación del Decreto Foral 5/2012, de 25 de enero, de Servicios de Comunicación audiovisual en la Comunidad Foral de Navarra.

En segundo lugar, hemos presentado **RECURSO DE ALZADA contra ORDEN FORAL 10/2019**, de 20 de febrero, de la Consejera de Relaciones Ciudadanas e Institucionales, por la que se aprueba el **concurso de tres licencias** de servicios de comunicación audiovisual sonora para radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia en la Comunidad Foral de Navarra, pidiendo la **paralización del mismo**, mediante resolución por la que **declare nula de pleno derecho la citada orden foral**.

Por ultimo y, en tercer lugar, por las razones expuestas en esta rueda de prensa hemos decidido **presentarnos al concurso** porque entendemos que la **frecuencia** asignada en la demarcación de Pamplona, debe de ser para **radio comunitaria** como anteriormente se hizo en el concurso convocado en julio del 2017 y porque es de justicia que **Eguzki**

irratia con 36 años de existencia en el dial navarro pueda regularizar sus emisiones mediante la **obtención de una licencia**.

Con ello **ganará la sociedad navarra** ya que se garantizará la **democratización** de los medios de comunicación, su **pluralidad** y la **libertad de expresión**.

<https://eguzki.eus/eguzki-irratia-demanda-que-la-licencia-de-radio-de-irunea-se-destine-a-emisoras-comunitarias/>

<https://eh.lahaine.org/eguzki-irratia-demanda-que-la>